

URUMEA KULTURGUNETIK



K-LEKUKO

2022/03/17

HERNANI

Hitzak sortu aurreko lurraldean
hotsak hizkuntza.

Oihuak, deiadarrak, garrasiak: hitz,
imintzioak, gorputz adierazpideak: esaldi eta aditz.

Orain,
hizkuntzen lurraldean bizi garela,
besoei eta hankei eraginez,
betiko isiltzeko arriskuan dagoen hizkuntzaren atzetik
goaz,
berriz ere,
oihu, deiadar, garrasi oro
hitz bihurtu nahian.



Lehenengo geltokia



1.1

Handiak txikia jaten duen eran
desagertu da hizkuntza bat
aste honetan Txilen,
azken hiztunaren heriotzarekin.

Azken agurra,
berea ez zen gazteleraz
eman behar izan du
uler ziezaioten.
Alferrik dira malkoak orain.

Ba al daki inork zenbatzen
zenbateko galera den
hizkuntza bat galtzea?
Ez da lehena tamalez.

Hizkuntzek,
sare babesa behar dute,
irauteko, indartzeko, bizitzeko.

Adi!
gose aseezineko jatunak
baititu inguruan euskarak.

1.2

Zuk Baionan esandakoak kontuan harturik
laguntzaile gazte batzuek gure eginkizuna bete nahi dugu

euskaraz irakurtzen eta idazten ez dakiten euskaldunei
hori egiten erakusteko jokabide batean pentsatu dugu.

Gainera zu nafarra zarenez gero beste zerbait
esan nahi nizuke,
ez ote legoke Nafarroako beste euskaldunekin
beste horrenbeste egiterik?

Gu, gazte talde bat, prest gaude edozertan laguntzeko.
Denbora galarazi ez dizugulakoan,

zure borondate borondatetsuagatik
eskerrak emanez agur dizu

zure zerbitzari den
X.X.

1.3

Iragana, oraina eta geroa,
euskararen aldeko lana
baina ez korri eginez bakarrik;
baizik eta erabiliz eta erabilaraziz,
erabiltzeko bideak erraztuz,
tresnak prestatuz,
behar diren legeak aldatuz,
eskaintza handitzeko laguntzak emanez,
azken batean, denok, agintariak eta herritarrak,
gure buruarekin kontsekuenteago izanik.

1.4

Nik momentu batean erabaki nuen euskalduna
izan nahi nuela.

Hain pozik nengoen ez zitzaidala batere kosta.

Hizkuntza oso polita iruditzen zitzaidan.

Nik euskaldun jendea ez nuen benetan ezagutzen.

Kontua zen ikastea.

Batzuetan kosta egiten zait niri ere ulertzea,
baina oso ederra eta atsegina izan zen
euskara ikastea.

Beste unibertso bat aurkitu nuen.

Euskararen kontra esaten zirenak, ikasezina eta
oso zaila zela, argudio hutsal eta
gezurrezkoak direla ikusi da.

Euskaldun izateko aukera hartzen baduzu posible da,
horixe dela posible!

1.5

Euskara bizi da, euskaraz bizi garelako.

Eta biziko da, ondorengoei hala bizitzeko modua
utziko diegulako.

Euskaldunak gara, ez Euskal Herrian bizi garelako,
euskaraz bizi garelako baizik.

Zaila da belaunaldi batek hurrengoari, berak sentitzen
ez duena transmititzea. Litekeena da hurrengo
belaunaldiek aurrekoen galera berreskuratzea.

Hemen konbinazio guztiak dira posible, galtzekoak
zein irabaztekoak.

Hemen argi dagoena da euskararen izatea borondate
kontua dela.

Borondate indibiduala eta borondate kolektiboa.
Borondate politikoa eta borondate soziala.

Bigarren geltokia



2.1

Gu ez gara
lau katu,
eta zure lagunak
gara.
Beste hizkuntzak
maite ditugu,
eta ezagutu nahi ditugu,
eta erabiltzen ditugu,
baina
bizi,
euskaraz egin nahi dugu,
mundua
koloretakoa atsegin dugulako,
eta ez zuri-beltza.
Munduari
gure kolorea
eman nahi diogu,
euskararena,
etxetik
hasita,
Euskal Herritik.

2.2

Moroak gara
behelainoen artean?
Indioak gara?

Korrika egiten dugu
bizirik irauteko

indioak gara
kantu *heavy* batean?
Run to the hills, bai,

korrika egiten dugu
ibaitik muinoetara

gure historia da
etorkizuna: gerra
eta uholdea

korrika egiten dugu
bizirik irauteko.

2.3

Ama hizkuntza ez da lehenik ikasten den hura,
ez da amaren magalean jaso genuen hura,
ama hizkuntza da, enetzat,
pentsatzeko baliatzen dugun hizkuntza.
Gure arrazoiak eta irudiak nola fabrikatzen ditugun
han dago gure ama hizkuntza.
Eta posible da, bizitzan zehar,
euskara ama hizkuntza bilakatzea,
euskaraz pentsatzen ikastea.
Bide horretan zatoztenoi miresmen eta goraintzi,
eta norbaitek esaten baldin badizue
zuek euskaldun berriak zaretela,
edo euskara ez dela zuen ama hizkuntza,
esaiozue zaharra izatea ez zaiola inori gustatzen,
eta bide batez, esaiozue,
ama hizkuntza ez dela lehenik ikasten den hura,
pentsamendua sortzen duen bakoitzaren hizkuntza baizik.

Herri hau ere euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen.

2.4

Auzia ez da izan ala ez izan.

Kontua ekitea da.

Eta nor izatea, herri hau euskaraz eta euskaratik arnasa
berriz sortu, birsortu eta ahalduntzeko.

Eta nor izatea, euskahaldunduz guztiok ahaldunduko
gaituen herri bat sortzeko.

Izatea ekitea da.

Egiten duguna gara.

2.5

Hizkuntzan ikusten du bere burua
edozein pertsonak zein komunitatek,
oharkabea bada ere,
eta hizkuntza kaltetua
ispilu apurtua bezalakoa izaten da.
Hizkuntza bat desagertzen denean,
mundu guztiak galtzen du
bizitza ikusteko eta azaltzeko modu berezi bat.
Euskara, beste hizkuntzak bezala,
altxor unibertsal bat da,
denona delako,
agortzen ez delako,
dohainekoa delako.

Hirugarren geltokia



3.1

Denona da,
dena
pribatizatzen ari den sasoian.
Ez da agortzen erabiliz gero,
gauza gehienak erabili
eta botatzen diren egunetan.
Eta dohainik erabiltzen dugu,
gehien gehiena ordaindu behar denean.
Euskara noranahikoa da,
baina gutako bakoitzaren baitan dago.
Lapur altxorra balitz bezala edukiko duzu
zulo ilunen batean ezkutaturik?
Konturatzen zara goizetan ohetik jaikitzean
ezti tanta gozo bat
ezti tanta gozo bat
ezti tanta gozo bat
ezti tanta gozo bat bezala senti dezakezula ezpainean?

3.2

Euskara, ez da euskararen
gauzetarako aplikazioa.
Euskarak behar du
herri honen Sistema Eragilean.
Memoria handiko lur honen
hizkuntza beti eguneratua, eta software librekoa.

Baina besteekiko badu alde bat:
euskarak dena du aurka;
eta horrexegatik juxtu, dena du mauka!
Dena baitu sortzeko, euskarak,
ia dena du-eta sortzeke.
Dena du egiteko, euskarak, dena du egiteke.
Hizkuntza bat dugu ahulguztiduna.

3.3

Hizkuntza guretzat
poza eta haserrea,
poza eta haserrea delako;
barreak eta malkoak,
barreak eta malkoak
euskaraz
sortzen zaizkigulako,
euskara egun
egun ero
egunero,
erabiltzen, hobetzen, eraikitzen, zabaltzen,
hobetzen, erabiltzen, eraikitzen, zabaltzen,
hobetzen, eraikitzen, erabiltzen, zabaltzen,
hobetzen, eraikitzen, zabaltzen, erabiltzen
dugun mundu bat delako.

3.4

Aukerak eskaini eta euskara eskatu.
Datozenei ere eman euskarari ostatu
eta eskertu
eta ospatu.
Gu elkartzeko gaitu zer ospatuak.
Gu, eta *Gu* honen baitako *Gu*-ak:
Umeak, gazteak, helduak, zahartuak...
Ahoskera berri eta zarratuak.
Zuek eta *haiek*, zakurrak, katuak...
Sarreak, mantalak, *gigak* eta datuak.
Azalak, ahotsak...
Sei kontinenteetan sakabanatuak,
Sei kontinenteetatik gudanatuak.
Arnasgunekoak, oxigenatuak.
Erribera idortu ta mahats zanpatuak...
...elebesteratuak.
eta neskenegunak eta zapatuak.
Euskaraz sortuak
eta euskararatuak.

3.5

Oraintxe, une honetan noa;
alegia, *korrika* noa;
eta gero azkar etortzean
korrika natorrela agerian da.
Mezua alde batetik bestera bidaltzeko,
lehen, diligentziak eta zaldiak *korrika* egiten;
orain, euskararen berri emateko
herriz herri *korrika* jendea plazaratzen.
Horrela, kaleetan pertsonen mugimenduan
hizkuntzak zamalkatzen du,
txaloka eta agurren artean,
egunak eta gauak atzera uzten ditu.
Soinuak sortutako lorratza bezala
berri onen gozotasuna,
lagunen arteko elkartasuna
altxorra hitz bihurtuta,
hau dena *korrikari* lotuta.
Horretarako zenbat hizpide,
mezu, ahalegin, herriko lan...
Ez bakarrik eskuak eta hankak,
pentsaera ere besteenekin bilduta
korrika eta *korrika*.



Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2022ko martxoaren 17an,
Korrika Kulturalaren
ekitaldien barruan.